



Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bat erantzun behar diozu.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.

Zuzenketa eta kalifikazio irizpide espezifikoak:

1. Gaia: 5 puntu. Gaiaren kalifikazioa irizpide hauen arabera egingo da:
 - a. Galdetzen denari egokitzeko gaitasuna: 1 p.
 - b. Kontzeptu eta hiztegi espezifikoak ondo erabiltzea: 1 p.
 - c. Gaia bere textuinguruan jartzea: 3 p.
2. Testu iruzkina: 5 puntu. Testuaren kalifikazioa irizpide hauen arabera egingo da:
 - a. Testuaren kokapena (testu mota, egile, jasotzaileak, garaia): 0,5 p.
 - b. Testuaren analisia: testuaren oinarriko ideiak nabarmentzea: 1,5 p.
 - c. Testuinguruan jartzea: testua bere prozesu historikoan ezartzea: 2,5 p.
 - d. Testuaren garrantzia: kokatzen den aldi historikoa ulertzeko, testu horrek duen garrantzia adieraztea: 0,5 p.

Este examen tiene dos opciones. Debes contestar a una de ellas.

No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.

Criterios específicos de corrección y calificación:

1. Tema: 5 puntos. La calificación del tema se ajustará a los siguientes criterios:
 - a. Capacidad para ajustarse a lo que se pregunta: 1 p.
 - b. Uso adecuado de los conceptos y vocabulario específico: 1 p.
 - c. Contextualización del tema: 3 p.
2. Comentario de texto: 5 puntos. La calificación del texto se ajustará a los siguientes criterios:
 - a. Localización del texto (tipo de texto, autor, destinatarios, época): 0,5 p.
 - b. Análisis del texto: resalta las ideas fundamentales del texto: 1,5 p.
 - c. Contextualización: encuadra el texto en su proceso histórico: 2,5 p.
 - d. Importancia del texto: destaca su importancia para comprender el período histórico en el que está inscrito: 0,5 p.

A AUKERA

GAIA: INDUSTRIALIZAZIOA, LANGILEEN MUGIMENDUA ETA NAZIONALISMOA EUSKAL HERRIAN ERRESTAURAZIO-GARAIAN.

TESTU IRUZKINA: EUROPAR MUGIMENDUAREN KONGRESUAK MUNICHEN HARTUTAKO ERABAKIA

Europar Mugimenduaren Kongresuak, München 1962ko ekainaren 7an eta 8an bilduta, iritzi dio edozein herrialdek Europan sartu nahi badu, izan atxikita edo izan elkartze bidez, herrialde horrek erakunde demokratikoak izan beharko dituela; horrek, Espainiaren kasuan, Gizakiaren Eskubideei buruzko Europar Konbentzioaren eta Europako Gizarte Gutunaren arabera, hau esan nahi du:

1. Benetan ordezkaritza bidezkoak eta demokratikoak diren erakundeak eratzea, eta erakunde horiek bermatzea gobernu herritarren onespenean oinarritzen dela.
2. Pertsonen eskubide guztiak egiazki bermatzea; bereziki, norberaren askatasunari eta adierazpen-askatasunari buruzkoak, gobernuaren zentsurarik gabe.
3. Erkidego naturalen izaera berezia aitortzea.
4. Oinarri demokratikoen gainean, askatasun sindikalak baliatzea, eta langileek beren oinarrizko eskubideen defentsa egitea; besteak beste, greba-eskubidearen bidez.
5. Iritzi-korronteak eta alderdi politikoak antolatzeko aukera izatea, oposizioaren eskubideak aitortuta.

Kongresuak itxaropen sendoa du aurreko oinarri horien arabera eboluzioak aukera emango duela Espainia Europan sartzeko, haren funtsezko osagaia baita; eta adierazgarritzat dauka Kongresuan partaide izan diren espainiar ordezkari guztiek adierazi izana seguru daudela espainiar ordezkari gehienek nahi dutela eboluzio hori zuzentzea politikoaren arauen arabera egitea, egoerak aukera ematen duen bezainbesteko azkartasunarekin, denen zintzotasunarekin eta eboluzio-prozesuaren aurretik, prozesuan bertan nahiz prozesuaren ondoren bortxakeria aktibo nahiz pasiboari uko egiteko konpromisoarekin.

Munich (Alemaniako Errepublika Federala), 1962ko ekainaren 8a.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2010eko UZTAILA

HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JULIO 2010

HISTORIA

B AUKERA

GAIA: . FRANKISMOA: POLÍTICA-OINARRIAK ETA OPOSIZIOA

TESTU IRUZKINA: BERGARAKO HITZARMENA

Baldomero Espartero Armada Nazionalako kapitain jeneralaren eta Rafael Maroto teniente jeneralaren artean egindako hitzarmena.

1. art. Baldomero Espartero kapitain jeneralak gogotsu gomendatuko dio gobernuari Gorteei foruak ematea edo aldatzea formalki proposatzeko konpromisoa betetzeko.

2. art. Jeneral, buruzagi, ofizial eta Rafael Maroto teniente jeneralaren agindupeko armadako gainerako norbanakoen enplegu, maila eta kondekorazioak aitortu egingo dira. Rafael Maroto teniente jeneralak euren armen adierazpenarekin aurkeztuko ditu zerrendak eta 1837ko Konstituzioa, Isabel II.aren tronua eta bere Ama Agurgarriaren Erregeordetza zerbitzatzen eta defendatzen jarraitzeko edo etxera erretiratzeko askatasuna izango dute, armekin jarraitu nahi ez dutenek.

6. art. Aurreko artikuluek, hitzarmen hau berretsi eta hamabi egunera aurkezten diren enplegatu zibil guztiak hartzen dituzte.

7. art. Nafarroa eta Arabako dibisioak Gaztela, Bizkaia eta Gipuzkoako dibisioak bezala aurkezten badira, aurreko artikuluetan adierazten diren emakida berberak izango dituzte.

8. art. Baldomero Espartero kapitain jeneralaren eskuetan jarriko dira Rafael Maroto teniente jeneralaren menderapenean dauden artilleriak, arma lantegiak eta arma, arropa eta janari gordailuak.

Hitzarmena Bergarako kuartel nagusian berretsi da, 1839ko abuztuaren 31n.

Boletín Oficial de Pamplona, 1839ko irailaren 5a, osteguna.